

2021. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2021eko azaroaren 26an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2021/12/15 239. Zk.

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I.- XEDEA ETA OINARRIA

1. artikulua.

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106. artikuluan oinarriturik eta Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 21. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa kontuan izanda, udal honek eranskinean zehazten diren herri jabariaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasak ezarri ditu.

II.- EGITATE EZARGARRIA

2. artikulua.

Herri jabariko erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia gauzatzea da tasaren egitate ezargarría.

III.- SUBJEKTU PASIBOA

3. artikulua.

1.- Tasaren subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34. artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak, eta entitateak, baldin eta udal jabaria onura partikularrerako baliatzen, erabiltzen edo ustiatzen badute.

2.- Ibilgailuetarako sarbideak eginik, espaloiak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo bereziki aprobetxatzeagatik, eta horrelako sarbideak egiteagatik, mantentzeagatik, aldatzeagatik edo kentzeagatik ezarritako tasetan, hauek izango dira subjektu pasiboaren ordeko: ibilgailuen sarbide horiek dauzkaten finka eta lokalen jabeak; egokituz gero, jabeek onuradunei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

3.- herri administrazioek, autonomi erkidegoek, eta foru eta toki erakundeek ez dute tasarik ordaindu behar izango udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik, baldin eta zuzenean ustiatzen dituzten, eta

garraiobideekin lotutako zerbitzu publikoak badira, edo hiritarren segurtasunarekin eta nazioaren defentsarekin zerikusia dutenak badira.

4. artikulua.

Tasak lizentziak euren izenean jasotzen dituztenek ordainduko dituzte, eta horiek ezean, aprobetxamenduaren onuradun direnek.

IV.- SALBUESPENAK ETA HOBARIAK.

5. artikulua.

Salbuespenak edo bestelako hobariak emateko foru arauetan ezarritakoa bete beharko da.

V.- OINARRI EZARGARRIA

6. artikulua.

Herri jabariko erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasaren oinarri ezargarría aprobetxamendu mota, iraupenaren denbora, lizentziaren arabera baimendutako okupazioaren azalera, edo jadanik okupaturiko azalerak osatzen dute, eranskinean jasotako baldintzetan. Aprobetxamenduaren ondorioz merkatuan izango lukeen erabilgarritasunaren balioa hartuko da erreferentzia moduan.

VI.- TRIBUTU KUOTA

7. artikulua.

1.- Eranskinean ezarritakoaren arabera, tasaren kuota tarifa bat, horretarako adierazitako kopuru finko bat edo bi prozedurak batera aplikatuz ateratzen den kopurua izango da.

2.- Erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak tokiko jabari publikoa suntsitzea edo hondatzea badakar, onuradunak, dagokion tasa ordaintzearen kalte barik, berreraikitze edo konpontze gastuen kostu osoa itzuli beharko du, bai eta gastu horien zenbatekoa aldezturik gordailatu ere, Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru-Arauan oinarriturik.

Kalteak konponezinak balira, udalari hondatutako ondasunen balioaren besteko kalte-ordaina edo suntsitutakoen zenbatekoa emango zaio. Udalak ezin izango ditu barkatu, ez osorik ez zati baten, atal honetan azaltzen diren kalte-ordain eta itzulketak.

VII.- TASAREN SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

8. artikulua.

1.- Tasa ordaindu beharra sortuko da herri jabariaren erabilera partikularra edo aprobetxamendu berezia hasten denean. Hori dela- eta, erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia baimenean jarritako lehenengo egunean hasten dela ulertuko da, baimenean data zehatza jartzen duenean. Bestela, erabileraren hasieratzat hartuko da emandako baimenaren data.

2.- Tasaren berezko izaerak honen aldizkako sortzapena eskatzen duenean, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean izango da, eta zergaldia urte naturala izango da, erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten edo amaitzen den kasuetan izan ezik.

3.- Eranskinaren tarifen arabera eskatuko dira zenbatekoak, eta egindako erabilera edo aprobetxamendu bakoitzeko likidatuko dira. Ez dira murriztuko tarifetan adierazitako kopuruak, alta edo baja kasuetan izan ezik. Kasu hauetan, hilabete naturalen arabera egingo da hainbanaketa.

Subjektu pasiboari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik jabari publikoa erabiltzeko edo aprobetxatzeko eskubidea ez bada ematen edo garatzen, itzuli egin beharko da dagokion zenbatekoa.

VIII.- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

9.artikulua.

Udalak kontzeptu bakoitzeko dagokion likidazioa egingo du, eranskinean jasota egon daitezkeen arau partikularrak oinarri modura hartuta. Nolanahi ere, udalak autolikidazio-erregimenean eskatu ahal izango ditu tasa horiek.

Ikuskapena edo egiaztapena eginda erabilitako eremua edo aprobetxamenduaren iraupen erreala baimendutakoak baino altuagoak badira, kitapen osagarria egingo da, zerga urratzeagatik egokia den zigorraren kalte barik. Lizentzia barik eginiko aprobetxamenduetan, zuzeneko kitapena egingo da, ikuskapen edo salaketa espedientean agertzen diren datuen arabera.

IX.- TASEN KUDEAKETA

10.artikulua.

Ordenantza honek arautzen dituen tasak likidatzeari, biltzeari eta ikuskatzeari dagokionez, bai eta zerga-arloko arau-haustek kalifikatzeari eta kasuan kasuko zehapenak zehazteari dagokionez ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta hura garatzen duen araudian aurreikusitakoa beteko da.

ERANSKINA

A.-EPIGRAFEA: OBRA- INSTALAZIOEN OKUPAZIOA

Kontzeptua	2022 (€)
Hesiak, aldamioak eta antzeko instalazioak, m2-ko edo frakzioko, eta hileko edo frakzioko	11,74 €
Eskora, euskarri eta hesitik kanpoko beste apeamendu elementu batzuk. Elementu eta hileko edo frakzio bakoitzeko.	6,00 €
Obra-hondakinak, lurrak, hondarrak, eraikuntza-materialak, obra-dukiontzia edo materialak, m2-ko edo frakzioko, eta eguneko.	2,80 €
Garabi bakoitzeko, m2-ko edo frakzioko, eta urteko.	212,10 €

KUDEATZEKO ETA APLIKATZEKO ARAUAK:

1.- Tarifak: Epigrafea metro karratuko (m2) edo frakzioko, eta hilabeteko/eguneko/urteko edo denboraren frakzioko aplikatuko da, aprobetxamendu motaren arabera.

2.- Epigrafe honetan araututako tasa, bide publikoko aprobetxamendu berrien kasuan, lizentziak onartzen direnean ordainduko da eta baimendutako lizentzien luzapenak direnean, urtean behin kitatuko dira erabilitako aprobetxamenduaren denboraren arabera.

B.-EPIGRAFEA: HORNIDURA ZERBITZUEN INSTALAZIOEN OKUPAZIOA

	2022 (€)
1.- Kalikatak eta zangak irekitzea, metro linealeko eta/edo frakzioko, eta hileko	32,28
2.- Kableak, hodiak, errailak, banaketa- eta erregistro kaxak, baskulak, zutoiak eta antzeko elementuak, metro linealeko eta/edo frakzioko, urteko	31,00
3.- Transformadoreak, m ² -ko eta/edo frakzioko, eta urtean	31,00
4.- Lur publikoko okupazioak, gasa edo beste edozein hornidura garraiatzeko hodien, kableen eta elementu osagarrien lur publikoko okupazioa, metro linealeko eta/edo frakzioko, urteko	6,80
5.- Bide publikoaren lurpea gasolina deposituekin okupatzea m ³ -ko edo zatika, urtean	264,87

KUDEATZEKO ETA APLIKATZEKO ARAUAK:

1.- Tarifak: Epigrafea m³, metro karratuko (m²) edo metro linealeko, edo zatika eta hilabeteko/urteko edo denboraren frakzioko aplikatuko da, aprobetxamendu motaren arabera.

2.- Epigrafe honetan araututako tasa, lizentziak onartzen direnean ordainduko da eta baimendutako lizentzien luzapenak direnean, urtean behin kitatuko dira erabilitako aprobetxamenduaren denboraren arabera.

C.-EPIGRAFEA: IRABAZTEKO ASMOAREKIN MAHAI ETA AULKIEKIN OKUPAZIOA

Ostalaritzako okupazioa	2022 (€)
1.kategoriako kokapena	51,20
2.kategoriako kokapena	35,91
3.kategoriako kokapena	26,91

KUDEATZEKO ETA APLIKATZEKO ARAUAK:

1.- Tarifak: Epigrafea metro karratuko (m²) edo zatika eta urteko edo denboraren frakzioko, aprobetxamenduaren kalearen edo kategoriaren arabera aplikatuko da.

2.- Tasaren tarifa hauek *Ostalaritzaren terraza eta mahaiak instalatzeko udal ordenantzako* guneen sailkapena kontuan izanda finkatu dira.

3.- Tasa kuotaren emaitza kalkulatzeko begiratikiko elementu guztiak kontuan hartuko dira. Upel eta bankuen okupazioari dagokionez eta onartutako lizentzian jasotako azaleraren datua oinarri modura hartuko da. Baimendu gabeko aprobetxamendu kasuetan, unidade bakoitzeko elementu hauen gutxiengoko okupazio azalera m² batekoa izango da

D.-EPIGRAFEA: IBILGAILUAK ESPALOIETATIK SARTU, BIDE PUBLIKOAN APARKATZEKO ERRESERBA EGIN ETA EDOZEIN ERATAKO OKUPAZIOA

1.- IBILGAILUAK ESPALOITIK SARTZEA, metro lineal bakoitzeko, edo frakzioko, urtean:	2022 (€)
1.1.- Ibilgailuak gordetzeko etxebizitza-erakinetan edo aparkalekuetako garajeetan kokatutako garajeetako pasabideak	
1.1.1.- 5 lekuraino	29,00 €
1.1.2.- 6 lekutik 10era	57,00 €
1.1.3.- 11 lekutik 25era	87,00 €
1.1.4.- 26 lekutik 50era	127,00 €
1.1.5.- 50 lekutik gora	157,00 €
1.2.- Industria eta dendeteko pasabideak	72,00 €
2.- LOKALERAKO SARBIDERIK GABEKO APARKALEKU ERRESERBAK, urtean:	

2.1.- Taxi geltokia, ibilgailu bakoitzeko	111,33 €
2.2.- Autobus geltokirako erreserba bakoitza	396,17 €
2.3.- Bide publikoa aparkaleku eskusiborako erreserbatzea, metro lineal bakoitzeko	53,66 €

KUDEATZEKO ETA APLIKATZEKO ARAUAK:

1.- D.1.Tarifak: Epigrafea okupatutako sarreraren zabaleraren metro lineal bakoitzeko, edo zatika, eta urteko, edo denboraren frakzioko, aplikatuko da. Tarifak aplikatzeko ibilgailuen gehieneko edukiera hartuko da kontuan eta gutxienez 3 metro linealeko sarbidea kobratuko da.

D.2.Tarifak: 2.3. kasuan izan ezik, erreserben tarifak kontzeptu bakoitzeko urteko, edo denboraren frakzioko, aplikatuko da, azalera kontuan hartu gabe.

2.- Epigrafe honetan araututako tasa, lizentziak onartzen direnean ordainduko da eta baimendutako lizentzien luzapenak direnean, urtean behin kitatuko dira erabilitako aprobetxamenduaren denboraren arabera.

3.- Altak eta bajak egiteko hilabete naturalaren arabera hainbanaketa egingo da. Behin aprobetxamendua baimenduta, luzatutzat joko da indarraldiak irauten duen bitartean edo interesdunak baja-adierazpena aurkezten ez duen bitartean. Baimenaren indarraldia amaitzen bada eta interesdunak baja-eskaera aurkezten badu, eskaera aurkeztu eta hurrengo hilabete naturaleko lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Baja aurkezten ez bada, tasa ordaintzen jarraitu beharko da.

4.- Lizentzia gabeko pasabideen espaloien edo oinezko guneen aprobetxamendua dagoenean, erabilera hau eman dela egiaztatzen denetik ordaindu beharko da.

E.-EPIGRAFEA: KIOSKOAK BIDE PUBLIKOAN JARTZEAREN OKUPAZIOA

	<i>2022(€)</i>
ONCE kabinak edo antzeko erakundea, urtero	
1. kategoriako kokapena	347,40 €
Beste kategoria bateko kokapena	240,30 €
Bestelako erabilerak, m²-ko edo zatiko, hiru hileko	
1. kategoriako kokapena	70,00 €
2.kategoriako kokapena	62,00 €
3.kategoriako kokapena	54,00 €

KUDEATZEKO ETA APLIKATZEKO ARAUAK:

1.- Tarifak: Epigrafea jarritako kioskoaren erabileraren arabera, kasu bakoitzean jasotako iraupenaren arabera edo denboraren frakzioko, eta aprobetxamenduaren kalearen edo aldearen arabera aplikatuko da, azalera kontuan hartuta, horrela badagokio.

2.- Epigrafe hauek hiruhileko bakoitzaren lehen egunean ordainduko dira.

F-EPIGRAFEA: POSTU, BARRAKA, SALMENTA- POSTU, IKUSKIZUN EDO ATRAKZIOAK IPINTZEAGAITIK, KALEKO INDUSTRIA IBILTARIA ETA ZINEMA ERRODAJEAK EGITEAREN OKUPAZIOA

	2022 (€)
1. Salmenta automatikorako aparatuen eta antzekoen okupazioa, metro linealeko edo m ² -ko edo zatiko, urtean	82,00 €
2. Irabazi asmoko hainbat salmentarako postuak, ibilgailuen salmenta eta erakusketa, karabana eta ibilgailuen okupazioak, filmaketak egiteko okupazioak, m ² -ko edo frakzioko eta eguneko	
1. kategoriako kokapena	17,39 €
2.kategoriako kokapena	11,23 €
3.kategoriako kokapena	9,51 €
Gune berezietan ikus-entzunezko grabaketak: Gaztelugatxe eta Izaro	23,69 €
3. Barraka eta zirku okupazioa, ikuskizun eta jolasetako okupazioa, m ² -ko edo zatiko eta eguneko	0,06 €
4. Herriko jaietan salmenta-postu eta antzeko instalazioen okupazioa, m ² -ko edo zatiko eta eguneko	9,12 €
5. Azokatxoko postuak, m ² -ko edo zatiko, urtean	70,47 €
6. Gaztaina-saltokiak, denboraldia	80,23 €
7. Kutxazainak: bide publikoaren aurrean jarritako kreditu-establezimenduei erantsiak edo atxiki gabeak, fatxadaren lerroan, urtean Kutxazain bakoitzak gutxienez 2 metro lineal okupatzen dituela joko da.	602,25 €
8. Azokan hutsik dauden postuen aldi baterako erabilera, egunean	8,80 €
9. Azokako mahaien erabilera, metroko edo zatiko, egunean	
9.1.-Inguruko baserrietan ekoiztutako produktuak eta produktu ekologikoak saltzea	1,50 €
9.2.-Jatekoak diren gainerako produktuak	3,00 €
9.3.-9.1 edo 9.2 epigrafeetako produktuak ez direnak edo beste sektoreetako produktuak saltzea (jatekoak ez direnak)	6,40 €

KUDEATZEKO ETA APLIKATZEKO ARAUAK:

1.- F.1. eta F.7. tarifak: Aparatu horiek hartzen duten fatxadako metro lineal bakoitzeko, edo zatika, eta urteko, edo denboraren frakzioko, aplikatuko da.

F.2., F.3., F.4. eta F.5. tarifak: Epigrafea metro karratuko (m2) edo zatika, eta eguneko, edo urteko aplikatuko da. F.2. tarifa aprobetxamenduaren kalearen edo kategoriaren arabera aplikatuko da.

F.6. eta F.8. tarifak: Epigrafea kontzeptu bakoitzeko denboraldiko, edo eguneko, aplikatuko da, azalera kontuan hartu gabe.

F.9. tarifa: Azokako mahaien kasuan, mahaien metroko edo zatiko, eta eguneko aplikatuko da.

2.- Epigrafe hauetan araututako tasa, lizentzia onartzen denean ordainduko da eta baimendutako lizentzien luzapenak direnean, urtean behin kitatuko dira erabilitako aprobetxamenduaren denboraren arabera.

3.- Barrakak: Feria-lekuen okupazioa esleitzeko enkante, lehiaketa edo kontratuen sistema erabiltzen bada, udalak kasuan kasuko erabakitzen dituen oinarri eta baldintzen arabera egingo da esleipena. Kasu horietan, emakida, baimena edo esleipena izango duen proposamenaren balio ekonomikoak ezartzen duenaren arabera izango da tasaren zenbatekoa. Udalak herriko jaietan barrakak jartzeko beharrezkoa den herri jabariaren okupazioa hitzartu dezake Euskadiko ferialarien elkartearekin edo elkarteekin.

4.- Azokatxoa: F.5. epigrafeko urteko tarifa aplikatuta ematen duen zenbatekoa izango da urteko tasa. Baina lau hiruhilekotan banandutako errolda fiskalen bidez errezibozko kitapenak egingo dira, urteko tasaren zenbatekoa horrela zatituta.

5.- F.8. eta F.7. epigrafetako aprobetxamenduen kuotak autokitapen bidez ordainduko dira. Azokako arduradunak kobratu ahal izango ditu zuzenean erabilera egunean, lizentzia jaso duen aprobetxamenduaren iraupenaren eta eremuaren arabera ikuskaturik.

G-EPIGRAFEA: NESTOR BASTERRETXEA ARETOA, GIZARTE ETA KULTURA ETXEKO GELEN ERABILERAREN OKUPAZIOA

	2022 (€)
1. NESTOR BASTERRETXEA ARETOA	
1.1. Zinema, antzerki, musika emanaldietarako erabiltzea, orduko	52,16 €
1.2. Erakusketa gela bat erabiltzea, eguneko	169,03 €
1.3. Erakusketa gela bi erabiltzea, eguneko	239,96 €
1.4. Aretoko sarreren salmentako takila erabiltzea, orduko	13,66 €
1.5. Erakusketa zaintzea, orduko	7,58 €
1.6. Erabiltzaileak kokatzea, orduko	12,94 €
1.7. Gonbidatuei harrera egitea, orduko	12,94 €
2. GIZARTE ETA KULTURA ETXEA, orduko	
2.1. Sotoko entsegu gelak	5,00 €
2.2. Lehenengo solairua	

2.2.1. 1.1 entsegu gela	6,00 €
2.2.2. 1.2. entsegu gela	4,70 €
2.2.3. 1.3. entsegu gela	7,00 €
2.2.4. 1.4 entsegu gela	6,00 €
2.2.5. 1.5 entsegu gela	11,00 €
2.3. Bigarren solairua	
2.3.1. Batzar gela	4,30 €
2.3.2. 2.1. eta 2.2. gelak	5,00 €
2.3.3. 2.1. tailerra	8,30 €
2.3.4. 2.2. tailerra	7,20 €
2.3.5. 2.3 tailerra	6,00 €
3. Hirugarren solairuko hitzaldi aretoa	7,00 €

KUDEATZEKO ETA APLIKATZEKO ARAUAK:

- 1.- Udal eraikin hauen erabileragatik finkatutako tasak erreserba egitean ordainduko dira autolikidazio bidez.
- 2.- Eskatutako edo erabilitako aprobetxamendu bakoitzagatik ordainduko dira tarifak, eta dagozkien epigrafeetan adierazitako denbora naturalengatik ateratzen dena izango dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA

- 1.- Ordenantza hau onetsi baino arinagoko udal azoka emakidak honakoak izango dira:

1.EPIGRAFEA: Moduluen hileko zenbatekoak:	2022 (€)
1.1.- 1.modulua	107,69 €
1.2.- 2.modulua	95,77 €
1.3.- 3.modulua	53,87 €
1.4.- 4.modulua	10,79 €
1.5.- 5.modulua	10,79 €
2.EPIGRAFEA: Azokako postuen 5 urterako emakidak hilero	
2.1.- 1.modulua	25,00 €
2.2.- 2.modulua	21,91 €
2.3.- 3.modulua	10,29 €
2.4.- 4.modulua	2,59 €
2.5.- 5.modulua	2,59 €

- 2.- Ordenantza hau onetsi baino arinagoko kioskoen emakidak honakoak izango dira:

Kioskoak, m²-ko edo zatiko, hiruhileko	
Lamera	70,18
Erribera	13,50

Bermeoko udalerriko kaleen kategoriak

Tarifak aplikatzeko sailkapena:

Eremuak (alfabetikoki ordenatuta)	Kategoria
ADUBIDXE	3
AGIRRE AUZOA	3
AKURIO KONTRAMAIUA	2
ALDATSETA KALEA	2
ALMIKA AUZOA	3
ALMIKE BIDEA	3
ALMIKE KALEA	2
ANASAGASTI TAR TEODORO	2
ANDER DEUNA AUZOA	3
ANDER DEUNA BIDEA	3
ANDRA MARI KALEA	2
APIOZA KALEA	2
ARANA TAR SABINEN E.	1
AREILZA KALEA	2
ARANE AUZOA	3
ARITZATXU (HONDARTZA)	3
ARITZATXU BIDEA	2
ARMENDURUA KALEA	2
AROSTEGI KALEA	2
ARRANTZALEEN KOFRADIA	2
ARRESI KALEA	2
ARRESKUENAGA KALEA	2
ARRANOTEGI AUZOA	3
ARTIEDA TAR INGO	3
ARTIKA AUZOA	3
ARTIKE BIDEA	3
ARTZA KALEA	2
ASKATASUN BIDEA	2
ATALDE KALEA	2
AURREKOETXEA KALEA	2
BARATZ-EDER	3
BARBARA DEUNA KALEA	2
BARRUETA TAR BENITO	3
BAZTARRE KALEA	2
BIDEBARRIETA KALEA	2

Bide gorria- Ataldeko luzapena	3
BIZKAI BURU KALEA	3
BIZKAIKO JAURERRIA	2
BOLATOKI KALEA	2
BURUJABETASUN ZELAIA	3
DEMIKU AUZOA	3
DIBIO KALEA	3
DOLARIAGA KALEA	2
DONIENE KALEA	2
ELKANO TAR JUAN SE.	2
ERAUZKIN TAR JOSE A/ Artike enparantza	2
ERREMEDIO KALEA	2
ERREÑEZUBI KALEA	2
ERRETEN LAMERA	2
ERRIBERA KALEA	2
ERTZILLA KALEA	2
ESKINARRUAGA	2
ESKOIKIZ	2
ESPARRU KALEA	2
ESPARRU ZEHARKALEA	3
ETXEBARRIA TAR KRESENTZI	2
EUPEME DEUNA KALEA	1
FIELATO ENPARANTZATXOA	2
FRAILE LEKU KALEA	1
GARAVILLA TAR JOSE	3
GAZTELU ENPARANTZA	1
GAZTELUGATXE	1
IBARLUZEA TAR KOSME	1
ILUNA KALEA	2
INDAR ESKILARAK	2
INTXAUSTI KALEA	2
IPARRAGIRRE KALEA	3
IRAKASKINTZA KALEA	2
ISPIZUA TAR SEGUNDO	2
ISTUA KALEA	2
ITXAS-BEGI	3
IZARO UHARTEA	1
Kiroldegiko aparkalekua eta kiroldegi ingurua	3

KLARA DEUNA ESKILA.	2
KURTZIO	3
KURTZIO AUZOA	3
LAMERA	1
LAMERA TXIKI ENPARANTZA	2
LANDABASO industrialdea	3
LANDATXUKO ESKILARAK	2
LOPE DIAZ DE HARO	1
MAÑU AUZOA	3
MARTIN DEUNA KALEA	3
MATXITXAKO BIDEA	3
MENDOZA KARDENAL	2
MIKEL DEUNA AUZOA	3
MIKEL DEUNA BIDEA	3
MIKEL DEUNAREN ENP	2
MORONDO	3
NARDIZ TAR BENANZIO eta portu zahar osoa	1
NARDIZ TAR GONZALO	2
NARDIZ TAR JON	2
NEKAZARI KALEA	2
OKARANTZA	3
ONDARRABURU KALEA	2
ONGINTZA KALEA	2
PELAIO DEUNA auzoa	3
PRANTZISKO DEUNA ENPARANTZA	1
PRANTZISKO DEUNA KALEA	1
PRANTZISKO DEUNA ATEA	1
SANTAMAÑE	2
TALAKO ANDRA MARI	3
TALAKOETXEA KALEA	2
TALARANZKO KALEA	2
TELLAETXE TAR JOSU	3
TONPOI BIDEA	3
TORRONTERO ENPARANTZA	2
TORRONTERO KALEA	2
TORRONTEROKO ESKILARAK	2
TRAKE KALEA	2
TXIBITXIAGA	2

TXIBITXIAGA (BL)	3
UTSA ESKILLARAK	2
ZARRAGITXI	3
ZUBIAUR TAR KEPA	2